

Herritarrek

2015eko apirila

INFORMATZEN

Udalgintza informazioa 2011-2015

15.alea



www.berastegi.eus

HIRIGINTZA

1. Kultur solairua: Ari dira dagoeneko liburutegia, kz-gunea eta abar bilduko dituen solairuko lanekin udaletxean. Goitu Eraikuntzak S. L. enpresak egingo ditu lanak, eta 3 hilabete inguru iraungo dute. 86.000 euro jaso ditugu proiekturako Eusko Jaurlaritzako Nekazaritza eta Arrantza saileko Erein laguntzetatik; beraz, 86.000 euro horiekin eta udalak inbertsioen partidan lan hauetarako aurreikusitako 180.000 euroekin, solairu osoa birgaitzeko moduan izango gara.



2. Plaza ixteko plana: Tolosaldea Bus-eko arduradunekin hitz egin da, eta autobus geltokia telefono kabinaren ondoan jartzea erabaki da. Markesina egingo dela ere adostu da. Pareko farola kendu egingo da, eta bertan izango dute autobusek buelta emateko aukera. Bestalde, martxan dira aparkaleku berriko lanak ere. Labaien Anaiak S. L. enpresak du lan horien ardura.

3. Irisgarritasun planaren barruko lanak: Lizarragako paretari altuera jaitsi zaio; Garziarena Saralegi S. L. eraikuntza-enpresak egin ditu lanak. Zaraguetaneko urbanizazio-lana ere epe motzean egin nahi genuen, baina espero baino mantsoago doaz negoziazioak. Lurrak okupatzeko lanetan ari gara.

4. Kale izendegi berria: Kale izen guztiak osatuta daude, eta plenez onarpena jaso zain dago plana. Laster jakinaraziko zaizue herritarroi zein den bakoitzaren helbide berria. Kale-izenen seinaleak ere jarriko dira.

EKONOMIA

5. Herri lurren eta herri bideen inbentarioa: Hasi gara lehen pausoak ematen. Ikusi dugu beste herri batzuetan eginak dituztela horrelako inbentarioak, eta guk ere gurea egiten hastea espero dugu luze baino lehen, udalaren funtzionamendu egokirako funtsezko dokumentua izango baita.

6. GoiEner kooperatiba: Duela gutxi Goierriko GoiEner Energia Berriztagarrien Sorkuntza eta Erosle Kooperatibako bazkide egin da udala. %100ean berriztagarria eta merkea den energiaren hornitzen ditu bazkideak, eta herri erakundeak ez ezik, herritarrak ere izan litezke bazkide.



Energia berriztagarrien sorkuntza
eta erosle kooperatiba
Cooperativa de generación y
consumo de energía renovable



Bertako ordezkariak prest agertu dira herrian hitzaldi bat eskaintzeko, GoiEner-en lanaren eta zerbitzuen berri emateko. Jakinaraziko zaizue noiz izango den.

Udalak orain arte kontratazio zentralaz hornitu izan ditu bere energia-beharrak, Aldundiaren bitartekaritzarekin, baina orain dela gutxi eten zaigu kontratazio hori, eta beste bide batzuk jorratzeko moduan gaude.

Udaletxea bera, dagoeneko, pelet bidezko kalderekin berotzen dugu; beraz, beste udal eraikinetan probatu nahi ditu udalak GoiEner-en zerbitzuak.

7. Eguzki-farolen mantentze-lanak: Ekiona enpresa da hornitzailea, eta bera arduratuko da aurrerantzean herriko eguzki-farolen mantentze-lanez. 1.500 euro gehi bez-eko kosta du urtean behingo errebisioak. Aurtengoa egin berri dute eta martxan daude farolak.

ESKUALDEKO BERRIAK



8. Tolosaldeko Komunikazio Taldea: 3 urterako hitzarmena lotu du udalak. Urtean biztanleko 5 euro emango zaizkio Ataria prentsa-idatziaren eta irratia-ardura duen komunikazio taldeari. Gertuko eta euskarazko informazioa lehenesten dugulako egin dugu apustua. Idatzizkoaren banaketa -zerbitzua hobetzeko elkarlanean ere ari gara TKT-koekin.

9. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aurrekontu parte-hartzaileak: 500.000 euroko partida aurreikusi du Aldundiak eskualdeko banatzeko. Eskualde ikuspegia duten eta onuradun herri bat baino gehiago dituzten proiektuak lagunduko dira. Herriz herri bilerak egiten ari da Aldundia, herritarrak informatzeko. Eta, hala, Berastegikoa apirilaren 29an, asteazkena, izango da, arratsaldeko 6etan, udaletxean. Gonbidatuta zaudete.

10. Tolomendiren plan estrategikoa (2015-2020): Martxoaren 16an egin zen plan estrategikoa aurkezteko eta lantzeko lehen saioa. Datozen 5 urteetako helburuak eta lan ildoak zehazteko balio izan zuen.

Hainbat gai landu zituzten bertaratutakoek: lehen sektorea, elikadura burujabetza, energia eta abar. Saioko pdf dokumentua www.tolomendi.net -en dago ikusgai.



MOTZEAN

11. Eskabadora berria: Bigarren eskuko eskabadora erosi du udalak, lehengoa oso hondatuta baitzegoen. 20.000 euro eskaseko kostua izan du. Aldundiaren Lurralde Oreka laguntza bat erabiliko da gastua berdintzeko.

12. Txakur kakak biltzeko ontziak: Herritarren eskariari erantzunez, txakur kakak biltzeko ontziak jarriko dira. Hiru ontzi jartzea erabaki da: bat, plazan; bestea, Sastitxarreko bidegurutzan; eta, hirugarrena, kanposantu atarian.

GIZARTE ZERBITZUAK

13. Mediku-kontsulta berria udaletxean: Medikuen eta erizainaren kontsultak udaletxera lekuz aldatzeko proiektuak aurrerapauso handia eman du. 80.000 euroko laguntza agindu digu Eusko Jaurlaritzak, eta horrela herriko osasun-zerbitzuak udaletxeko sotoan egokitzeko beharrezko finantziazioaren %50 lortu da. Proiektuak 157.000 euroko aurrekontua du.

KULTURA

14. Inauterien balantzea: Eskertu eta zoriondu beharrea gaude Urepele elkarteak, inauterien antolaketan egin dituen ekarpenengatik: mozorro-kalejira goizean goizetik eta joko-triki-poteoa, luntxa eta dj-a arratsaldean. Aurten afaria beharrea bazkaria egitea erabaki da, eta asmatu den irudipena du udalak.



15. Ondare ez materialaren inguruko hitzaldia: otsailaren 20an Urkiri Salaberria ikertzaileak hitzaldia eskaini zuen udaletxean. Ukiezina den ondareaz, kulturaz, euskal kulturaz, identitateaz eta altxor biziez mintzatu zen, besteak beste. Herrian daukagun ondare ez materialaren inguruan gogoeta egitera ere bultzatu gintuen hizlariak. Emun Euskara eta Berrikuntza Soziala kooperatibaren bidez lotu zen hitzaldia.

16. Artelanen erosketa eta mailegua: Mariano Arsuaga eta Maria Cuetoaren artelan bana erosi ditu udalak. Pleno gelako atearen ondoan daude jarrita. Beste zenbait artelan udalari mailegutuzan uzteko ere prest azaldu dira bi artistak. Zer eta nola mailegatu zehazteko, hitzarmen bat adostu eta sinatuko dugu.



17. Martxoak 8. Emakumeen Nazioarteko Eguna: Aurten ere ez dugu eguna oharkabean pasa zedin nahi izan. Martxoaren 6an, ostirala, urtero bezala emakumeen afaria egin zen Basurde elkartearen, eta igandean, egunean bertan, *Loreak* pelikularen emanaldia antolatu zuen udalak erabilera anitzeko gelan.

18. Bertso-eskola bertan behera: Aurreko hiruhilekoan iragarri bazen ere, ez da bertso-eskolarik antolatu azkenean, ez baita parte hartzaile nahikorik bildu.

19. Udalbiltzaren diru-laguntza eskaera eta Urkijoren helegitea: Euskal Herriko 7 lurraldeetako udalak eta udal hautetsiak biltzen dituen biltzarra dugu Udalbiltza. Berastegiko udala eta hautetsiak bertako kide gara 2012tik. Euskal Herriaren nazio eraikuntzan hainbat arlotan lanean ari den erakundea da, eta bere lana garrantzizko ikusi izan du eta ikusten du udalak.



Hala, baiezkoarekin erantzun genion Udalbiltzak bere garaian egindako diru-laguntza eskaerari. Espainiako gobernuaren ordezkari den Carlos Urkijok, ordea, helegitea jarri zion Berastegiko udalari Udalbiltza diruz laguntzeko hartutako erabakiarengatik. Epaiketa izan da, baina estatu ordezkariaren abokatua epaiketara aurkeztu ez denez, azkenean artxibatuta geratu da kasua.

20. Korrika 19. Berastegitik barrena: Martxoaren 21eko goizaldean, 5,30etik 6,00ra bitartean pasa zen Korrika gure herritik, hainbat urteren ondoren. Udal ordezkarien eta herriko elkarteetako arduradunen artean eraman zuten lekukoa herriko kilometroetan zehar. Eguraldiak ez zuen askorik lagundu, baina jendetza bildu zen Korrikari laguntzera.

21. Elkarteentzako diru-laguntzak: Otsailaren 10ean bildu ginen herriko elkarteetako ordezkariekin, 2015eko diru-laguntzen deialdia martxan jartzeko. Aurki jakinaraziko zaie elkartei zer zenbateko jasoko duten.

22. Festak antolatzeko batzordea: 2015eko Salontzoak antolatzeko batzordea ere martxan da dagoeneko. Lehenengo bilera martxoaren 12an egin zen; bigarren bilera, berriz, apirilaren 23an, osteguna, egingo da, iluntzeko 20,30ean, udaletxeko bilera gelan. Proposamenik duenik bada, gonbidatuta dago.